DANI BLANCO

**Mikel Irizar**

KOMUNIKAZIOAN ARITUA

# Irismena, onarpena, eragina

EUSKAL HEDABIDE ASKO –tokiko gehienak– euskararen aldeko mugimenduaren bultzadaz sortuak dira eta hizkuntzaren normalizazioan eragitea dute lehentasun. Ondorioz, ahalik eta unibertsalen bihurtzea da haien helburua: zenbat eta herritar gehiagorengana iritsi, orduan eta euskarari mesede handiagoa.

*Arrasate Press*ek jarri zuen eredua. "Betiko euskaltzale militantea baino gehiengo euskalduna gogoan", abiatu zen aldizkaria, eta bi urteren buruan 7.000 aletik gora banatzen zituen –doaneko harpidetzan– 25.000 biztanleko herrian. Hau da, ia etxe guztietan sartzen zen euskaraz, euskaldunak oraindik erdia inguru zirenean. Eta arrakasta ez zen Arrasatera mugatu: 90eko hamarkadan 50etik gora toki aldizkari sortu ziren, guztiak euskaraz.

Horien irismena neurtu zuen Aztiker-ek 2007an Euskaltzaleen Topagunearen enkarguz hamaika toki aldizkariren esparruan, populazio osoaren lagin ausazko eta handi bati galdetuta. Bertan, "sarbide edo irismenaz" galdetuta, batez beste %50 ingurukoa zen populazio osoarekiko eta %70 ingurukoa elebidunekiko.

Irismen horren kalitateaz –hedabideok lortzen duten onarpenaz– bi datu: hartzaileen batez besteko nota zen 7,5tik gorakoa kasu guztietan; eta %85ak uste zuen ildo editorial plurala dutela.

> *Topagunearen azterketan galdetutako etxeen %84an tokiko komunikabidea zen etxe horretan sartzen zen argitalpen bakarra*

Enpresa berak 2012an *Goiena*ren gainean galdetuta, ia herritar guztiek (%96,8) eskualdearentzat beharrezkoa edo oso beharrezkoa kontsideratzen dute, baita euskara ulertzen ez dutenek ere.

Irismenak eta onarpenak ba ote dute eraginik euskararen normalizazioaren ikuspegitik? Topagunearen azterketan galdetutako etxeen %84an tokiko komunikabidea zen etxe horretan sartzen zen argitalpen bakarra.

Areago, MUren doktore tesi batek 2013an Gipuzkoako nerabeei galdetu zien ea ikus-entzunezkoak zein hizkuntzatan kontsumitzen dituzten: %14,2 izan zen euskararen batez besteko partea. Baina Debagoienan %39,4 zen, Goierrin %31, Urola-Kostan %26, eta Debabarrenean %21,4. Hau da: toki komunikabideen garapenak zuzenean handitzen du gazteengan ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzeko joera.

Beraz, nire ustez zuzena da erakundeen Euskara sailek aldagai hauei lehentasuna ematea, euskal hedabideen artean diru-laguntzak banatzerakoan. Ebaluazio sistema egoki eta adostu bat behar da orain. Hortik aurrera, sektoreko enpresek dituzten egiturazko premiei edo bilakaerari laguntzea beste sail batzuei dagokie, Ekonomiari edo Berrikuntzari. Ordua da urrats hori egiteko. ■

XDZ

**Joanes Etxebarria**

KAZETARIA

# Argazki bat

USTE NUEN ene herriko bidaiari handiak gazteak zirela denak, baina bada horietan 79 urteko gizon bat. Ezagutu nuena, gurasoei egurra saltzen zielako.

Entzun nahi duenari kontatzen dio bere urteroko bidaia luzea, autoz, emaztearen familia ikusteko egina. Errusiara joaten da, emaztea hangoa baitu. Segur aski oraino jende anitzek pentsatzen dutena uste nuen, joan den larunbatera arte: diru truk ezkondu zela, alegia. Edo familiari sos emanez, edo bizitza hobe baten promesa eginez, edo holako zerbait.

Joan den larunbatean bere etxera joan nintzen, baita sartu ere, aperitifaren gomitarekin. Erosotasunean xume bezain maitasunez betea dute etxea. Elkar maite dute, eta hori ez du diruak kausitzen.

Moskuko balet dantzari profesionala eta irakaslea izan ondotik, Madril, Paris, Mexiko eta hamaika bazter kurritu ondoan, Barkoxen pausatu da dantzaria. Eta urtean behin, hilabete baterako, Moskura doa bikotea, artistaren familia ikustera. Emazte horrek gure gizona Parisera eraman zuen behin –60 urte zituelarik–, eta geroztik, Errusiarako bidean saihesbideetatik doaz: Grezia, Italia, eta ondokoetan gehiago. Bi bidaien artean, egurra saltzen dute. ■